Akordio proposamena
TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK:
ONARTUA
Propuesta de acuerdo a
JUNTA DE GOBIERNO LOCAL:
APROBADA

TGB Bilkura
Sesión JGL
2026/02/24

Zinegotzi idazkaria / Concejal-a
Olatz Yarza Garagorri

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

ERROTULUAK EUSKARAZ EDO EUSKARAZ ETA BESTE HIZKUNTZA BATEAN JARTZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

ZIOEN AZALPENA

Donostiako Udalaren ildo estrategikoetako bat da arlo sozioekonomikoan euskara sustatzea eta, kontuan izanda zerbitzuen sektoreak hiriko ekonomian duen eragina eta garrantzia, hirian kokatutako merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduen egoera soziolinguistikoa aztertzea eta euskararen presentzia eta erabilera ziurtatzea.

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak, bere helburu eta eginkizunen esparruan, hiria euskalduntzeko tresna publikoa izatea aurreikusten du eta, horrenbestez, lehentasunezkotzat jotzen du establezimenduei dirulaguntza ematea errotulazioa euskaraz edo euskaraz eta beste hizkuntza batean jartzeagatik, besteak beste, kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bermatzen baititu. Horretarako, Donostian kokatuta dauden merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduek nahiz beste zerbitzu batzuk eskaintzen dituztenek dirulaguntza eskatu ahal izango dute haien kanpoko zein barruko hizkuntza paisaia euskaraz edo euskaraz eta beste hizkuntza batean jartzeagatik.

1. artikulua. Xedea eta arautegia

Oinarri hauek 2026 urtean dirulaguntzak emateko prozedura orokorra arautzen dute. Dirulaguntzak Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatuko ditu.

Oinarri hauen xedea honakoa da:

Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetako nahiz beste zerbitzu

BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA PONER LOS RÓTULOS EN EUSKERA O EN EUSKERA Y EN OTRA LENGUA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Una de las líneas estratégicas del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián es la promoción el euskera en el ámbito socioeconómico y, teniendo en cuenta la incidencia e importancia del sector servicios en la ciudad, analizar la situación sociolingüística de los establecimientos ubicados en la ciudad y asegurar la presencia y el uso del euskera.

El Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, en el marco de sus objetivos y funciones, contempla ser el instrumento público para la euskaldunización de la ciudad, y, por tanto, considera prioritario otorgar subvenciones a aquellos establecimientos que opten por colocar sus rótulos en euskera o en euskera y en otra lengua, entre otras cosas, porque así garantizan los derechos lingüísticos de las personas consumidoras. Para ello, los establecimientos comerciales, hosteleros y los prestadores de otros servicios situados en Donostia/San Sebastián podrán solicitar subvención por poner el paisaje lingüístico, tanto exterior como interior, en euskera o en euskera y en otra lengua.

Artículo 1º. Objeto y normativa aplicable

Las presentes Bases regulan el procedimiento general para la concesión de subvenciones para el año 2026, cuya gestión corresponde al Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.

Estas bases tienen por objeto:

Poner el paisaje lingüístico, tanto exterior como interior, de los establecimientos

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

batzuk eskaintzen dituzten establezimenduetako hizkuntza paisaia, kanpokoa zein barrukoa, euskaraz edo euskaraz eta beste hizkuntza batean jartzea.

Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduentzako dirulaguntza Donostiako Udalaren 2024-2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita dago. Bertan, dirulaguntza horri dagokion fitxan, jasota eta zehaztuta daude dirulaguntzaren helburu estrategikoak eta espezifikoak. Hona hemen helburu horiek:

Helburu estrategikoak: euskara sustatzea.

Helburu espezifikoak: Hiriko merkataritzako eta ostalaritzako hizkuntza-paisaia euskalduntzea sustatzea, eta kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzea.

Dirulaguntza hauek oinarri hauetan xedatutakoaren eta indarrean dagoen gainerako arautegian xedatutakoaren arabera emango dira.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, aplikagarria izan dira dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (2003-11-18ko BOE) eta 887/2006 Errege Dekretuak onartutako garapen-erregelamendua.

Era berean, ezin izango da dirulaguntza horien onuradun izan sexuagatik diskriminatzailea den inongo jarduera, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan aurreikusitako diskriminazio anizkoitzeko alderdiak biltzen dituen inongo jarduera ere. Pertsona fisiko eta juridikoak ere ezin izango dira laguntza horien onuradun izan, baldin eta zehapen administratiboa edo

comerciales y de hostelería, así como de los establecimientos que ofrecen otro tipo de servicios, en euskera o en euskera y en otra lengua.

La subvención a los establecimientos comerciales y de hostelería está prevista en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, y en el Plan, en la correspondiente ficha, se recogen los objetivos estratégicos y específicos de dicha subvención. Son los siguientes:

Objetivos estratégicos: el fomento del euskara.

Objetivos específicos: Promover la euskaldunización del paisaje lingüístico del comercio y la hostelería urbanos y garantizar los derechos lingüísticos de las personas consumidoras.

La concesión de estas subvenciones se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

En todo lo no contemplado en las presentes bases, será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (BOE 18-11-2003), y su reglamento de desarrollo aprobado por el Real Decreto 887/2006.

Tampoco podrá ser objeto de estas ayudas ninguna actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres ni podrán ser beneficiarios/as de ellas las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

penala ezarri bazaie sexuagatik diskriminazioa egin dutelako edo, dagokion zehapenean ezarritako aldian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko arauak ez dituztelako bete.

sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción.

Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten entitateak, eta, estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako entitateak.

Asimismo, tampoco podrán recibir ayudas las entidades que, debiendo tener un Plan de Igualdad vigente según la normativa del Estado, no la tengan, ni aquellas entidades de más de 50 personas trabajadoras que no acrediten haber establecido medidas para prevenir y combatir el acoso sexual o acoso por razón de sexo en los términos establecidos en la legislación del Estado en materia de igualdad de mujeres y hombre.

Kanpoko errotulazioari dagokionez, Parte Zaharreko establezimenduek ez dute dirulaguntzarik jasoko, baldin eta 1995ean onartutako Plan Berezian jasotako arauak betetzen ez badituzte. Hau da, debekatuta dago era guztietako iragarkiak jartzea fatxadan, salbu barruko tarteetan, non 0,25 metroko lerrokatzea errespetatuko duten. Gainerako auzoetan, hirigintza planak jasotzen dituen arauak beteko dituzte.

En lo que se refiere a la rotulación exterior, no recibirán subvenciones los establecimientos sitos en la Parte Vieja que no cumplan las normas recogidas en el Plan Especial aprobado en 1995. Esto es, se prohíbe la colocación en la fachada de toda clase de anuncios, excepto en el interior de los huecos, retranqueados 0,25 m de la alineación correspondiente. En el resto de barrios, tendrán que cumplir la normativa que recoge el plan de urbanismo.

Gainera, lehendik Udalak diruz lagundutako errotulazio elementu bat ez da berriro lagunduko 5 urte igaro arte.

Además, un elemento de rotulación ya subvencionado por el Ayuntamiento no volverá a ser objeto de ayuda hasta pasados 5 años.

2. artikulua. Eskatzaileak

Artículo 2º. Solicitantes

Dirulaguntza hauek eska ditzakete Donostiako udalerrian merkataritzako edo ostalaritzako establezimendua edo beste zerbitzu batzuk emateko establezimendua duten pertsona fisikoek edo juridikoek.

Podrán solicitar estas subvenciones las personas físicas y jurídicas titulares de empresas o establecimientos comerciales, hosteleros y de otros servicios radicados en el término municipal de Donostia/San Sebastián.

Ezingo dituzte dirulaguntza hauek jaso Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonek edo erakundeek (2003ko

No podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las personas o entidades en quienes concurra algunas de las circunstancias previstas en el art. 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

azaroaren 18ko BOE).

de Subvenciones (BOE de 18 de noviembre de 2003).

Norbanakoek edo erakundeek ezingo dute dirulaguntzarik jaso baldin eta Donostiako Udalarekin dituzten zorrengatik behartze bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ez eta Udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero ere, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen dituzten arte; salbuespen bakarra izango da zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioa bertan behera utzita egotea.

Tampoco podrán concederse subvenciones a los particulares o entidades que se hallen incursos en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián ni aquellos que no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

Aurreko ataletan aipatu bezala, dirulaguntzen onuraduna izatea debekatzen duten ziorik ez dagoela egiaztatu beharko du eskatzaileak eskaera inprimakian egin erantzukizuneko adierazpenaren bidez edota azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13.7 artikuluan xedaturiko beste edozein baliabide erabilita.

La justificación de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario a que se refieren los apartados anteriores podrá realizarse mediante declaración responsable otorgada por el solicitante en el modelo de solicitud y/o a través de cualquiera de los medios contemplados en el art. 13.7 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

3. Artikulua. Betebeharreko baldintzak

Artículo 3º. Requisitos

Aurreko artikuluan adierazitakoez gain, dirulaguntza jaso ahal izateko honako baldintzak bete beharko dira:

Además de lo dispuesto en el artículo anterior, para poder optar a las subvenciones habrá que cumplir los siguientes requisitos:

a) Izen propioak (izenak edota abizenak), toponimoak edota akronimoak soilik dituzten errotulu nagusiek eta gainerako errotulazio-elementuek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

a) Los rótulos principales u otros elementos de rotulación en los que sólo consten nombres propios (nombres y apellidos), topónimos o acrónimos no serán subvencionables.

b) Dirulaguntza jaso ahal izango da errotuluan izen propioaren, toponimoaren edo akronimoaren ondoan establezimenduaren langintza mota edo jarduera profesionala adierazten bada. Adibidez: “Peio arrandegia”, “Ezeiza arropa-denda”, “Mandobide taberna”...

b) Se podrá recibir la subvención si junto al nombre propio, topónimo o acrónimo se indica el tipo de trabajo o actividad profesional del establecimiento. Por ejemplo: “Peio arrandegia”, “Ezeiza arropa-denda”, “Mandobide taberna”...

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

c) Euskarazko izen arrunt batez edo izen sintagma batez osatuak diren errotuluek (adibidez, "Izar", "Atotxako Sorgina" edo "Hiru Ahots") dirulaguntza jaso ahal izango dute.

c) Aquellos rótulos que estén formados por un nombre común o un sintagma nominal en euskera (por ejemplo, "Izar", "Atotxako Sorgina" o "Hiru Ahots") podrán ser subvenciónados.

d) Aldi baterako errotuluek edo euskarriek ez dute dirulaguntzarik jasoko. Errotuluak egonkorra izan behar du dirulaguntza jasotzeko.

d) Los rótulos o soportes temporales no recibirán subvención, ya que el rótulo debe ser fijo para ser suvbencionable.

e) Dirulaguntza jaso ahal izateko, euskaraz eta gaztelaniaz grafia berdintsua duten edo antzeko moduan idazten diren terminoak, euskaraz soilik idatziko dira errotuluan.

e) Los términos que se redacten en euskera y castellano con grafía similar, en el rótulo se escribirán únicamente en euskera.

f) Dirulaguntza jaso ahal izateko, lagundutako errotulazio-elementua zuzen idatzita egongo da; hau da, ez du akats gramatikalik edo ortografikorik izango.

f) No percibirán subvención aquellos rótulos y elementos que estén incorrectamente escritos; esto es, que tengan errores gramaticales u ortográficos.

Euskara hutsez egindako errotuluarengatik dirulaguntza ematen denean, kontuan izango da establezimenduaren hizkuntza paisaia osoa. Eta errotu bat edo gehiago baditu euskara ez den beste hizkuntza batean, euskarak duen presentzia aztertuko da eta horren arabera emango da dirulaguntza.

Cuando se conceda una subvención por el rótulo escrito exclusivamente en euskera, se tendrá en cuenta la totalidad del paisaje lingüístico del establecimiento. Y si hay un rótulo o más en un idioma que no sea el euskera, se analizará la presencia que tiene el euskera y la ayuda que se concederá será en base a ello.

Bi hizkuntza ofizialak edota hizkuntza gehiago erabiltzen direnean, euskararen presentzia, gutxienez, gaztelaniaren edo beste hizkuntzen parekoa izango da dirulaguntza jaso ahal izateko.

Cuando se utilicen las dos lenguas oficiales o más lenguas en un rótulo, la presencia del euskera será como la del castellano o como la de las demás lenguas como mínimo, para poder recibir la subvención.

Testuak zutabeka daudenean, euskara ezkerrekoan jarriko da. Testuak lerro berean daudenean, euskaraz hasiko dira. Eta testua bi lerrotan dagoenean, lehenengo lerroan joango da euskara eta bigarren lerroan beste hizkuntza. Era berean, testuak bi orritan bereizita daudenean, eskuineko orria euskararentzat izango da eta ezkerrekoa gaztelaniarentzat edo beste hizkuntza batentzat.

Cuando los textos estén en columnas, a la izquierda irá el texto en euskera. Cuando los textos estén en la misma línea, comenzarán en euskera. Y cuando el texto esté en dos líneas, la primera será en euskera y la segunda en la otra lengua. Del mismo modo, cuando los textos estén divididos en dos hojas, la página de la derecha será en euskera y la de la izquierda en castellano o en otra lengua.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak doako itzulpen eta aholkularitza zerbitzua eskainiko die interesdunei, diruz lagundutako errotuluetako testuen zuzentasuna bermatzeko.

El Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián ofrecerá a las personas interesadas un servicio gratuito de traducción y asesoramiento para garantizar la corrección de los textos de los rótulos objeto de subvención

Komeni da errotulazio elementua egin aurretik baliatzea itzulpen eta zuzenketa zerbitzuaz, ondoren hizkuntza-okerrik izan ez dadin eta, horrenbestez, dirulaguntza jasotzeko aukera izateko (Euskara Zerbitzua: 943 48 37 50; udala_euskara@donostia.eus)

Es conveniente utilizar el servicio de traducción y corrección antes de realizar el elemento de rotulación, para evitar errores lingüísticos posteriores y, por tanto, para poder optar a recibir la subvención (Servicio de Euskera: 943 48 37 50; udala_euskara@donostia.eus)

4. artikulua. Eskabideak aurkeztea

Artículo 4º. Presentación de solicitudes

Dirulaguntza eskaera egiteko Euskara Zerbitzuak luzatutako eskaera-orri ofiziala beteko da.

La solicitud de subvención se realizará cumplimentando el modelo de instancia oficial facilitada por el Servicio de Euskera.

Eskaera-orria oinarri hauekin batera doa eta honako udal webguneetan dago eskuragai: www.donostia.eus eta www.donostiaeuskaraz.eus/merkatari

La instancia, anexa a estas bases, está disponible en las siguientes páginas web: www.donostia.eus y www.donostiaeuskaraz.eus/merkatari

Dirulaguntza-eskaera Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bulegoetan aurkezteko aukera ere egongo da.

Las solicitudes podrán presentarse también a través de cualquiera de los medios a que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 2026ko abenduaren 31ra bitartean, hori barne.

Las solicitudes podrán presentarse a partir del día siguiente a la publicación de las presentes Bases en el BOG y hasta el 31 de diciembre de 2026, incluido.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Documentación a presentar:

a) Euskara Zerbitzuak luzatutako eskaera-orria behar bezala beteta.

a) Impreso de solicitud expedido por el Servicio de Euskera debidamente cumplimentado.

b) Fakturaren originala eta ordainketaren agiriak.

b) Factura original y justificante del abono.

c) Elementua jarrita edo eskuragarri dagoela

c) Fotografía del elemento una vez

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

frogatzen duen argazkia. Eskaera elementu bat baino gehiagorentzat egiten denean, diruz laguntzea nahi den elementu guztien argazkia aurkeztu beharko da. Gainera, establezimenduaren kanpoko errotuluaren edo ibilgailuaren gaineko dirulaguntza eskaera bada, establezimenduaren kanpoko errotulu guztien edo ibilgailuaren alde guztien argazkiak aurkeztu beharko dira.

colocado o demostrativa de que el material está disponible. En caso de solicitar subvención para más de un elemento, deberán presentarse las fotografías de cada elemento. Del mismo modo, si la solicitud es para un rótulo exterior o para rotular un vehículo, deberán presentarse las fotografías de todos los rótulos exteriores del establecimiento o vehículo.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak ezartzen du interesdunek eskubidea dutela ez aurkezteko administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administraziok prestatutakoak.

La Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las AAPP establece que los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración.

Dirulaguntza-eskaera aurkezteak berarekin ekarriko du eskatzailearen baimena, organo emaileak jaso ditzan Foru Ogasunak, Udaleko Dirubilketa zerbitzuak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeko.

La presentación de la solicitud de subvención conllevará la autorización de la persona solicitante para que el órgano concedente recabe los certificados a emitir por la Hacienda Foral y Recaudación Municipal y por la Tesorería General de la Seguridad Social conforme a lo establecido en el artículo 23.3 de la Ley 38/2003 de 17 de Noviembre, General de Subvenciones a fin de acreditar el cumplimiento de obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

Zergak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ordaintzen dituztenek, dagokien Ogasuneko ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Quienes tributen fuera de de la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán presentar siempre los certificados de las Haciendas correspondientes.

Eskatzaileak Udalaren kontrol eta egiaztapen lanak erraztu beharko ditu.

El/la solicitante deberá facilitar los controles y trabajos de comprobación efectuados por el Ayuntamiento.

Eskaria ondo beteta ez badago edo eskatzaileak aurkezturiko dokumentazioa osatu gabe badago, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari eskabide orria edo dokumentazioa osa dezan.

En caso de no presentarse la solicitud debidamente cumplimentada o la totalidad de la documentación necesaria, o faltara documentación se notificará al solicitante, y se le concederá un plazo de diez días

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

hábiles para que proceda a su subsanación.

Hala egingo ez balu eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta hala jakinaraziko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 68.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición según lo previsto en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.- artikulua. Izapidetzea eta Ebazpena

Artículo 5º. Instrucción y Resolución

Jardunbideak izapidetzeaz Euskara Zerbitzua arduratuko da. Euskara Zerbitzuak ebazpen proposamena igorriko dio Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari eta horrek emango du dirulaguntza emateari edo ukatzeari buruzko ebazpena, arrazoiak emanda, ebazteko eskumena eskuordetzeari kalterik egin gabe.

La instrucción de los procedimientos corresponderá al Servicio de Euskera que elevará propuesta de resolución a la Junta de Gobierno Local quien resolverá sobre la concesión o denegación de la subvención de manera motivada, sin perjuicio de la posible delegación de su competencia para resolver.

Behin betiko ebazpena erabaki eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez ere. Denbora hori igaro eta berariazko ebazpenaren jakinarazpenik egin ez bada, dirulaguntza eskaerak ez direla onartu joko dute eskatzaileek.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución es de seis meses. Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución expresa, las personas solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes de subvención.

Behin baldintza guztiak beteta daudela egiaztatuta, dirulaguntzak kreditu erabilgarria agortu arte emango dira, Erregistro Nagusian izandako eskaeren sarrera data eta orduaren araberako lehentasun-ordena jarraituta.

Constado el cumplimiento de los requisitos, la concesión de las subvenciones se efectuará, hasta agotar el crédito disponible, siguiendo el orden de prelación establecido por la fecha y hora de presentación de la solicitud completa en el Registro General de entrada de las solicitudes.

6. artikulua. Diruz lagungarriak diren elementuak

Artículo 6º. Elementos subvencionables

Diruz lagunduko dira:

Serán subvencionables:

- Establezimenduaren kanpoko errotuluak (errotulu nagusia, toldoa, erakusleihokoak...) edo ibilgailuarenak.

- Rótulos externos del establecimiento (rótulo principal, toldo, rótulos del escaparate...) o del vehículo.

- Establezimenduaren barruko hizkuntza paisaia: idatzizko euskarri finkoak;

- Elementos del paisaje lingüístico interno del establecimiento: soportes escritos fijos;

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

seinaleztapen-euskarriak (*sarrera/irteera, komuna, sukaldea, eremu pribatua*... adieraztekoak); bezeroak eskuragarri izan ditzakeen idatzizko euskarriak (menua, karta, katalogoa...); eta erabilera bakarreko idatzizko euskarriak (poltsak, ahozapiak, plater azpikoak, opari-txartelak, etiketak...).

soportes escritos de señalización (*entrada/salida, aseo, cocina, espacio privado…*); soportes a disposición de la clientela (menú, carta, catálogo…); y soportes escritos de un solo uso (bolsas, servilletas, manteles, tarjetas regalo, etiquetas...).

Errotuluaren euskarriari dagokion gastua bakarrik lagunduko da diruz; ez da kontuan hartuko errotulua instalatzearen gastua.

La subvención del rótulo versará sobre el gasto del rótulo propiamente dicho; no se tendrá en cuenta el gasto derivado de la colocación del elemento en el establecimiento.

Erakusleihoan jartzen diren kanpoko errotulu edo biniloei dagokienez, euskarriaren gastua bakarrik lagunduko da diruz; ez da kontuan hartuko kristalaren kostua, ez eta instalazio-gastua ere.

En las rotulaciones sobre el cristal del escaparate, sólo se subvencionará el gasto del vinilo propiamente dicho; no se tendrá en cuenta el coste del cristal ni el gasto de la instalación del vinilo.

Toldoen kasuan, estanpazio gastua bakarrik ordainduko da; ez da toldoari dagokion gastua ordainduko.

En lo que a la rotulación de toldos se refiere, solo se pagará el gasto de estampación; no se tendrá en cuenta el gasto de la colocación del toldo.

Era berean, establezimenduaren barrurako diren elementuetan, sortutako euskarriak/materialak bakarrik lagunduko dira diruz.

De la misma manera, en lo que se refiere a los elementos del paisaje lingüístico interior de los establecimientos, la subvención versará sobre los soportes/materiales creados.

Inoiz ez dira lagun daitezkeen gastutzat joko zeharkako zergak, berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak izanez gero.

No se considerarán gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.

2026. urtean ordaindutako gastua lagunduko da diruz.

Será subvencionable **el gasto abonado en el ejercicio 2026**.

7. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Artículo 7º. Cuantía de la subvención

KANPOKO ERROTULAZIOA

ROTULACIÓN EXTERIOR

- **Kanpoko errotulu nagusia eta/edo toldoa**:

- **Rótulo principal y/o toldo:**

*** Euskaraz** soilik jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **% 60**ko dirulaguntza emango da, betiere **800 euroko**

* La subvención será del **60 %** de la base imponible del gasto para poner **en euskera**. Dicho importe **no**

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

mugapean.

* **Euskaraz eta beste hizkuntza batean** jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **% 30**eko dirulaguntza emango da, betiere **400 euroko mugapean.**

- Kanpoko ateko eta erakusleihoko errotulua/biniloa:

* **Euskaraz** soilik jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **% 60**ko dirulaguntza emango da, betiere **600 euroko mugapean.**

* **Euskaraz eta beste hizkuntza batean** jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **% 30**eko dirulaguntza emango da, betiere **300 euroko mugapean**.

- Ibilgailuetako errotuluak:

* **Euskaraz** soilik jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **% 60**ko dirulaguntza emango da, betiere **400 euroko mugapean ibilgailuko**.

* **Euskaraz eta beste hizkuntza batean** jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **%30**eko dirulaguntza emango da, betiere **200 euroko mugapean ibilgailuko.**

BARRUKO ERROTULAZIOA

- Establezimenduek eskaintzen dituzten produktuak / zerbitzuak erakusteko erabiltzen diren **idatzizko euskarri finkoak:**

* **Euskaraz** soilik jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **%60ko** dirulaguntza emango da, betiere **600 euroko mugapean.**

*** Euskaraz eta beste hizkuntza batean** jartzeagatik gastuaren oinarri

sobrepasará los 800 euros.

* La subvención será del **30 %** de la base imponible del gasto para poner **en euskera y en otra lengua**. Dicho importe **no sobrepasará los 400 euros**

- Rótulo/vinilo de la puerta y/o escaparate:

* La subvención será del **60 %** de la base imponible del gasto para poner **en euskera**. Dicho importe **no sobrepasará los 600 euros.**

* La subvención será del **30 %** de la base imponible del gasto para poner **en euskera y en otra lengua**. Dicho importe **no sobrepasará los 300 euros.**

- **Rótulación de vehículos**:

* La subvención será del **60 %** de la base imponible del gasto para rotular **en euskera**. Dicho importe **no sobrepasará los 400 euros**.

***** La subvención será del **30%** de la base imponible del gasto para rotular **en euskera y en otra lengua .** Dicho importe **no sobrepasará los 200 euros por vehículo.**

ROTULACIÓN INTERIOR

- **Soportes fijos escritos** que se utilizan en los establecimientos para mostrar los productos / servicios que se ofrecen.

* La subvención será del **60%** de la base imponible del gasto para poner en **euskera.** Dicho importe **no sobrepasará los 600 euros.**

* La subvención será del **30%** de la

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

ezargarriaren **%30eko** dirulaguntza emango da, betiere **300 euroko mugapean.**

- **Idatzizko seinaleztapen-euskarriak** (**komunak, jangela, sarrera/irteera, aldagelak, eremu pribatuak**... adieraztekoak**):**

*** Euskaraz** soilik jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **%60ko** dirulaguntza emango da, betiere **500 euroko mugapean.**

*** Euskaraz eta beste hizkuntza batean** jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **%30eko** dirulaguntza emango da, betiere **250 euroko mugapean.**

- Eskaintzen diren produktuak, zerbitzuak eta prezioak ikusteko **bezeroak eskuragarri dituen idatzizko euskarriak (menua, karta, katalogoak, poltsak...):**

* **Euskaraz** soilik jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **%60ko** dirulaguntza emango da, betiere **500 euroko mugapean.**

* **Euskaraz eta beste hizkuntza batean** jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **%30eko** dirulaguntza emango da, betiere **250 euroko mugapean.**

- **Erabilera bakarreko idatzizko euskarriak (plater azpikoak, ahozapiak, biltzeko papera, opari-txartelak...):**

* **Euskaraz** soilik jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **% 60ko** dirulaguntza emango da, betiere **400 euroko mugapean.**

* **Euskaraz eta beste hizkuntza batean** jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren **% 30eko** dirulaguntza

base imponible del gasto para poner en **euskera y en otra lengua.** Dicho importe **no sobrepasará los 300 euros.**

- **Soportes escritos de señalización** del establecimiento (**baños, comedor, entrada / salida, probador**…):

* La subvención será del **60%** de la base imponible del gasto para poner en **euskera.** Dicho importe **no sobrepasará los 500 euros**.

* La subvención será del **30%** de la base imponible del gasto para poner en **euskera y en otra lengua.** Dicho importe **no sobrepasará los 250 euros**.

- Soportes escritos a disposición de la clientela que ofrecen información sobre los productos, servicios y precios **(menú, carta, catálogos, bolsas…).**

* La subvención será del **60%** de la base imponible del gasto para poner en **euskera.** Dicho coste **no sobrepasará los 500 euros.**

* La subvención será del **30%** de la base imponible del gasto para poner en **euskera y en otra lengua.** Dicho coste **no sobrepasará los 250 euros.**

- Soportes escritos de un solo uso (manteles, servilletas, papel de envalar, tarjetas de regalo...):

* La subvención será del **60 %** de la base imponible del gasto para poner en **euskera**. Dicho coste **no sobrepasará los 400 euros.**

* La subvención será del **30 %** de la base imponible del gasto para poner en **euskera y en otra lengua.** Dicho

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

emango da, betiere **200 euroko mugapean.**

coste **no sobrepasará los 200 euros.**

Ehuneko horiek % 10 handitu egingo dira eskatzaileak egiaztatzen badu **Bai Euskarari, Harrobi** edo **Bikain** ziurtagiria duela edota **Euskaraz barra barra** proiektuan parte hartzen duela.

Estos porcentajes podrán incrementarse en un 10 % si el/la solicitante acredita estar en posesión del certificado **Bai Euskarari, Harrobi** o **Bikain** o participar en el proyecto **Euskaraz barra barra**.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk ematen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortzearekin.

Estas subvenciones serán compatibles con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados.

Deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera eta errekurtsoekin batera, ezin izango du inola ere erakunde onuradunak egin beharreko jarduerearen kostua gainditu.

El importe de las subvenciones otorgadas en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el costo de la actividad subvencionada a desarrollar por la entidad beneficiaria.

8. artikulua. Aurrekontua

Artículo 8º. Presupuesto

Oinarri hauetan jasotzen diren laguntzetarako aurrekontua 10.000,00 eurokoa da eta gastua 2026ko Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuko aurrekontuaren 480.01 kontu sailari egotziko zaio.

La cantidad destinada a las ayudas contempladas en estas Bases es de 10.000,00 euros y el gasto se hará a cargo de la partida 480.01 del presupuesto de 2026 del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.

Aurrean ezarritako zenbatekoak estimatutako gehienezko zenbateko osotzat joko dira. Dena dela, oinarri hauek onartzen direnetik laguntzak esleitu bitartean erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua gehituko balitz, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuaren 58.2 artikuluan jasotako zirkunstantzietako edozein gertatzearen ondorioz, laguntzen emakida- ebazpena baino lehen eta deialdi berririk egin gabe, deialdiari aplikatzea edo ez erabaki ahal izango da, dagokion gastuaren espedientea izapidetu eta gero. Zirkunstantzia horren berri deialdia iragarri zen komunikabide

Las cuantías anteriormente fijadas tendrán la consideración de cuantía estimada máxima. En el supuesto de que entre la fecha de aprobación de las presentes bases y la de la adjudicación de las ayudas se incremente el importe del crédito presupuestario disponible como secuencia de cualquiera de las circunstancias previstas en el artículo 58.2 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General De Subvenciones, podrá decidirse, sin necesidad de nueva convocatoria, con carácter previo a la resolución de las ayudas, su aplicación o no a la misma,

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

beretan emango da, Zerbitzuko zinegotziak emandako ebazpenaren bidez.

previa tramitación del correspondiente expediente de gasto. De dicha circunstancia se dará publicidad en los mismo medios que la convocatoria, mediante Resolución del Concejal del Área.

9. artikulua. Dirulaguntzen ordainketa

Dirulaguntzaren ordainketa aldi bakar batean egingo da emakida ebazpenarekin.

Artículo 9º. Pago de la subvención

El abono de la subvención se realizará en un único pago con la resolución de concesión.

10. artikulua. Itzultzea

a) Jasotako diru kopurua itzuli egin beharko da, eta dirulaguntza ordaintzen den unetik dirulaguntza itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko atzerapen-interesak eskatu, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako kasuetan aurreikusitako inguruabarretakoren bat gertatzen denean.

b) Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta beraz, premiamendu bidez eskatu ahal izango dira, dirua ez bada erabakitako epearen barruan itzuli.

c) Kudeaketa, ikuskapen edo kontrol lanetan, jasotako dirulaguntza oker lortu, gozatu edo erabili dela adierazten duten zantzuak agertzen badira, zantzu horiek espedientean jasoko dira, eta beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

Artículo 10º. Reintegro

a) Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en la Ley 38/2003 General de Subvención y su Reglamento de desarrollo.

b) Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público, por lo que podrán ser exigidas por la vía de apremio si el reintegro no se efectúa en los plazos que se determinen.

c) Cuando en el ejercicio de las funciones de gestión, inspección o control se deduzcan indicios de incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención percibida, se dejará constancia en el expediente de tales indicios, y se podrán acordar las medidas cautelares precisas.

11. artikulua. Itzultze-prozedura

Dirulaguntza eman duen organoak eskumena izango du emandako dirulaguntza osorik edo zati batean itzultzea behartzen duen ebazpena emateko. Administrazioak itzulketa

Artículo 11º. Procedimiento de reintegro

Será competente para adoptar la resolución de exigir el reintegro, total o parcial del importe percibido, el órgano que concedió la subvención. El derecho de la

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

onartu edo likidatzeko duen eskubidea lau urtera preskribatzen da.

administración a reconocer o liquidar el reintegro prescribe a los cuatro años.

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, goragoko agindu baten bidez, beste organo batek arrazoitutako eskaera eginda edo gai hori kontrolatu edo ikuskatzeko eskumena duen organo batek eskatuta, salaketaren bidez edo partikularrak berak egindako jakinarazpenaren bidez.

El procedimiento de reintegro de las subvenciones se iniciará de oficio, a instancia del órgano que concedió la subvención, de una orden superior, por petición razonada de otro órgano, o a instancia de un órgano que tenga competencia para efectuar el control o inspección de dicha materia, por denuncia o por comunicación realizada por el propio particular.

Prozeduraren izapideak egitean erakunde interesdunak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da beti.

En la tramitación del procedimiento se garantizará en todo caso el derecho de audiencia de la entidad interesada.

Emandako dirulaguntzaren kopuru osoa edo zati bat ez dela behar bezala erabili egiaztatuz gero, eskumena duen erakundeak ebazpen arrazoitua emango du, eta bertan azalduko ditu dirua itzultzera behartzen duen arrazoia edo arrazoiak zein diren, eta baita itzuli beharreko kopurua zenbat den ere; era berean, dirua nola eta noiz itzuli behar den ere azalduko da, eta dirua aurreikusitako epean itzultzen ez bada, premiamendu bidera joko da.

Verificada la indebida aplicación total o parcial de la subvención concedida, el órgano competente dictará resolución que deberá ser motivada, incluyendo expresamente la causa o causas que originan la obligación de reintegro, así como la cuantificación del importe que debe devolverse, y forma y plazo para reintegrarlo, advirtiendo de que, en el caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se procederá por vía de apremio.

Aurreko atalean deskribatutako itzultze-ebazpena jakinarazi eta gero, Finantza Zuzendaritza arduratuko da espedientearen izapideak egiteaz, eta horretarako kontuan hartuko ditu zuzenbide publikoko diru-sarrerentzat aurreikusitako arauak.

Una vez notificada la resolución de reintegro descrita en el apartado precedente, la Dirección Financiera asumirá la tramitación del expediente, sujetándose a las reglas legal y reglamentariamente previstas para los ingresos de derecho público.

Dirua itzultzeko prozedura administrazioko arau-hauste baten ondorioa bada, eskumena duen organoari jakinaraziko zaio dagokion zigortzeko prozedura has dezan.

Si el procedimiento de reintegro se hubiera iniciado como consecuencia de hechos que pudieran ser constitutivos de infracción administrativa, se pondrán en conocimiento del órgano competente para la iniciación del procedimiento sancionador correspondiente.

Itzultze-prozedurari buruzko ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea hamabi hilabetekoa izango da, hasiera-

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento de reintegro será de doce meses desde la fecha del

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

erabakiaren datatik kontatzen hasita. Epe hori igarota, ez bada berariazko ebazpenik eman, prozedura iraungi egingo da, baina horrek ez du esan nahi jarduerak ezingo direnik aurrera eraman amaiera arte, ez eta preskripzioa etenda geratuko denik ere egindako jarduerengatik, aipatu epearen amaiera arte.

acuerdo de iniciación. Transcurrido dicho plazo sin resolución expresa se producirá la caducidad del procedimiento sin perjuicio de continuar las actuaciones hasta su terminación y sin que se considere interrumpida la prescripción por las actuaciones realizadas hasta la finalización del citado plazo

12. artikulua. Arau-hausteak eta zigorrak

Artículo 12º. Infracciones y sanciones

Gai horretan, DLLOko 52. artikuluan eta hurrengoetan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoari jarraituko zaio.

En esta materia se estará a lo dispuesto en los artículos 52 y siguientes de la LGS y sus disposiciones de desarrollo.

Ahalmenak eskuordetzan uzteko unean-unean indarrean dauden araudiaren eta egituraren arabera, horretarako eskumena bere gain duen organoak zigorra ezartzeko ahalmena izango du.

Será competente para la imposición de la sanciones el órgano que, de conformidad con la normativa y la estructura de delegación de atribuciones vigente en cada momento, tenga atribuida tal competencia.

Zehapenak jartzeko erabakiek Administrazio bidea amaituko dute.

Los acuerdos de imposición de sanciones pondrán fin a la vía administrativa.

Zigortzeko jardunbidea administrazio publikoen administrazio-prozedura eta herri administrazioen zigor ahalmena arautzen duten legezko eta arauzko xedapenen nahiz dirulaguntza publikoen araudi erregulatzailearen arabera izapidetuko da.

Para la tramitación del procedimiento sancionador se estará a lo dispuesto en las disposiciones legales y reglamentarias reguladoras del procedimiento administrativo y del ejercicio de la potestad sancionadora de las administraciones públicas, así como a lo previsto en la normativa reguladora de las subvenciones públicas.

Arau-hausteak lau urteren buruan indargabetuko dira, gertatu ziren egunetik kontatzen hasita.

Las infracciones prescribirán en el plazo de cuatro años a contar desde el día en que se hubieran cometido.

Ezarritako diruzko zehapenak bereizi egingo dira dirua itzultzeko betebeharretik eta, kobratu ahal izateko, eskubide publikoko diru sarreretarako aurrikusitako araubide juridikoa hartuko da kontuan.

Las multas pecuniarias que se impongan serán independientes de la obligación de reintegro y para su cobro resultará de aplicación el régimen jurídico previsto para los ingresos de derecho público.

13. artikulua. Oinarrien interpretazioa

Artículo 13º. Interpretación de las bases

Oinarri hauek interpretatzeko inongo zalantzarik sortuz gero, laguntzak

Cualquier duda que pueda surgir respecto de la interpretación de estas Bases será

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Euskara

Konstituzio plaza, 2 | Tel. 010 - 943483750 | udala_euskara@donostia.eus | www.donostiaeuskaraz.eus
20003 Donostia

onartzeko programa bakoitzaz arduratzen den erakundeak argituko ditu.

14. artikulua. Errekurtsoak

Honako oinarri hauen aurka administrazioarekiko errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen hartarako eskumena duen erakundearen aurrean edo, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasiko dira.

resuelta por los órganos competentes para su aprobación.

Artículo 14º. Recursos

Contra las presentes Bases podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases.

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Olatz Yarza Garagorri (24/02/2026 09:47 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : ORTH-W535-FLTD-KUYV